

15/23

irizpena

EAEan angularen arrantza profesionala arautzen duen eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzen duen

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2023ko azaroaren 27a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 15/23

I.- AURREKARIAK

2023ko azaroaren 7an Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, *“EAEn angularen arrantza profesionala arautzen duen eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzen duen Dekretu-proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultatutako arauaren xedea, bere 1. artikulua arabera, angularen arrantza profesionala (lurretik eta ontzietatik) arautzea eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa (REPROAN) sortzea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren eskumenen esparruan. Arau horren xedea da angularen arrantza profesionala eta arduratsua bermatzea, merkaturatzearen azken faseraino legezko mugak betez.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Kontseiluko Batzordeko kide guztiei haiek proposamenak eta iritzia eman zitzaten eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helaraz ziezaioten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorritz.

2023ko azaroaren 17an Ekonomia Garapeneko Batzordea bildu zen eta hartutako erabakietan oinarrituta Irizpen Proiektu hau sortu zen. Ondoren, Kontseiluaren Osoko Bilkurara eraman zen eta azaroaren 27an aho batez onartu zuten.

II.- EDUKIA

“EAEn angularen arrantza profesionala arautzen duen eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzen duen Dekretu-proiektuak” zioen azalpena, 14 artikulua, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

Zioen azalpenak dio Batasuneko arrantzaren araudiak xedatzen duela baldin eta irizpen zientifikoek esaten badute espezie jakin baten populazio ugaltzailearen biomasa azkeneko erreferentzia puntuaren azpitik dagoela, arrantza mugatzen edo debekatzen duten neurri zuzentzaileak ezarri behar direla. Europako aingira arrantzatzea debekatu zen 2022an, eta 2023an aisialdi arrantzak debekatuta mantentzen du, baina profesionalki arrantzatzeko aukera dago, zenbait baldintza betez.

Horren arabera, agintariek neurri egokiak ezarri behar dituzte eta baliabideak eskuragarri jarri behar dituzte angula bere egungo egoera biologiko ahula kontuan hartuz arrantzatzeko. Hala, angularen arrantza mugatuta arautu da, eta bakar-bakarrik profesionalki arrantzatu ahalko da.

Horrenbestez, eta alderdi interesdunen arteko lankidetzaren barne hartzen duen kudeaketa jasangarria gauzatzeko, harrapaketa kuota ezartzeko, monitorizatzeko eta espezie horren kontserbazioa bermatzeko erregulazioak ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzak Dekretu honen bidez proposatzen du *“angularen arrantza jagolea”* deritzona sortzeko. Horrela, harrapaketak oso mugatuta eta kontrolatuta egongo lirake, arrantza zorrozki monitorizatu eta ebaluatuko litzateke, harrapaketak kontrolatuko lirake, arrantzaleen komunitateek aktiboki parte hartuko lukete, iraunkortasuna hobetuko litzateke, kontzientzia publikoa sortuko litzateke, espeziea kontserbatzen lagunduko litzateke eta etorkizuneko aldaketetara egokitzeko malgutasuna eskuratuko litzateke.

Aurreikuspen hori garatuz, eta aintzat hartuta EAEn angularen arrantza bakarrik aisialdi moduan dagoela araututa orain indargabetzen den otsailaren 18ko 41/2003 Dekretuan, araudia Kontseiluaren

2023ko urtarrilaren 23ko 2023/194 EB Erregelamenduan ezarritakora egokitu da eta erregelamenduan ezarritako baldintzapean angularen arrantza profesionalizatu da.

Horretarako, dekretu-proiektuaren artikulua hauek dira:

1. art. Xedea eta helburua
2. art.. Angularen arrantza profesionalerako lizentzia.
3. art. Lizentzia baten titularra izateko baldintzak.
4. art. Eskabideak eta agiriak
5. art. Lizentzien muga
6. art. Lizentzien banaketa finkatzeko esleipen-irizpideak.
7. art. Angulak eta kupoa arrantzatzeko baimenak esleitzeko ebazpena.
8. art. Angularen arrantzale profesionalen erregistroa.
9. art. Baimendutako aparailuak.
10. art. Angularen arrantzarako gaitutako arroak
11. art. Angularen arrantza-denboraldia.
12. art. Harrapaketak kontrolatzea eta pisatzea.
13. art. Interes profesionalak defendatzea.
14. art. Zehapen-araubidea eta lizentzia baliogabetzea.

Xedapen iragankorra. 2023-2024 kanpainako eskabideak aurkeztea

Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea

Azken xedapenetako lehengoa Betearazteko eta garatzeko ahalmenak.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

I. eranskina. Harrapaketen koadernoak

II. eranskina Angularen arrantza-baimenaren eskaera

III.- GOGOETA OROKORRAK

“EAEan angularen arrantza profesionala arautzen duen eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzen duen Dekretu-proiektuari” buruzko iritzia eskatu zitzaigun, zeinak Europako araubidea betez, EAEn indarrean dagoen araudia batasunaren betekizunetara egokitzen duen angularen arrantzari dagokionez. Hala, arrantza mota hori profesionalizatzen da emandako lizentziak eraginkorki eta ordenatuta kudeatzeko, eta horretarako, kasuan kasuko administrazio erregistroa sortu da.

Dekretuak angularen aisialdi arrantza arautzen duen indarreko 41/2003 Dekretua indargabetzen du. Orain lurretik eta ontzietatik egin daitekeen arrantza profesionala izango da bakarrik, eta 12 cm baino gutxiagoko aingira gazteen aleak harrapatuko dira oso kontrolatuta gaitu diren arroi, erabilitako tresneriari eta harrapaketen bolumenari dagokienez, beste batzuen artean.

Hala, helburua da “Europako aingira” bere segurtasun biologikoko mugetara itzultzea eta modu jasangarrian arrantzatzen dela bermatzea, ¹ Itsasoa Esploratzeko Nazioarteko Kontseiluaren gomendioak eta dagokion Europako araudia betez. Helburu horiek partekatzen ditugunez, aurkeztu zaigun arauaren aldeko iritzia dugu.

Dekretu-proiektuaren edukari dagokionez, hurrengo apartatuan azalduko ditugun artikuluen inguruko ohar zehatz batzuez gain, jakinarazi nahi dugu bidali zaigun dekretu-proiektuaren euskarazko bertsioaren hizkuntz-kalitatea txarra dela. Gaztelaniako testua irakurri ezean, ezinezkoa da euskarazko testuaren zenbait zatitan araututakoa ulertzea.

Legegileak, EGABek euskaraz arazorik gabe funtziona dezan (irakurketatik hasi eta idazketara arte), batzorde honetara euskarazko kalitatezko testuak bidali behar ditu, eta dekretu-proiektu honen kasuan ez da horrela izan. Gainera, zuzentzen ez bada, euskarazko testuaren kalitate txar horrek herritarrek araua ulertzeko zailtasunak sortuko lituzke.

Halaber, araua argiagoa izan dadin, dekretu-proiektuaren euskarazko bertsioan “lizentzia” (licencia) hitza lehenetsi beharko litzateke “baimen” (permiso) hitzaren aurretik, zeren eta askotan (zehazki 3., 7. eta 9. artikuluetan) “baimen” erabili da “lizentzia” adierazteko.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

3. art. Lizentzia baten titularra izateko baldintzak

Artikulu horren **2. apartatuan** hauxe dago xedatuta:

“2. Ontzietatik angulak arrantzatzeko lizentzia eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gutxienez 18 urte izatea.

b) Itsasoko langileen Gizarte Segurantzako araubide berezian altan emanda egotea Instituto Social de la Marina erakundearen, salbu eta pentsio jasotzaileak izatea. Kasu horretan, profesionalki arrantzatzen ahalko dute betiere jarduera horretako diru-sarrerak hileko lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen ez badute.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egotea

¹ Ikus Europar Batasuneko Kontseiluaren 1100/2007 Erregelamendua.

d) Indarreko araudiarekin bat etorriz, aztertutako ontzia izatea

e) Ontzia gidatzeko titulazioa izatea

f) Jarduera gauzatzeko elementu eta ezagutza nahikoak izatea”.

EGABek ez du ulertzen zergatik ontzietatik angulak arrantzatzeko kasu zehatz honetan, profesionalizatzeko baldintzak bestelako arrantza jardueren ezberdinak diren.

Zehazki, **“d” baldintzari** dagokionez, berariaz aipatu beharko litzateke lizentziaren titularraren ontzia EAeko itsas barrutietako ontzien matrikulen administrazio erregistroren batean inskribatuta egon behar dela, zehazki 3. zerrendan², horixe baita arrantzontziei dagokiena.

“E” baldintzari dagokionez, eta aurreko arrazoiei jarraikiz, helburua arrantza profesionala arautzea denez, titularrak, ontzia gidatzeko titulua izateaz gain, dagokion arrantza titulazioa izan beharko luke.

5. art. Lizentzien muga

Hauxe dago ezarrita: “arrantza arloan eskuduna den zuzendaritzako titularraren ebazpenaren bitartez, eta dagokion aholkularitza teknikoa jaso eta gero, urteko gehieneko harrapaketa kuota ezarriko da, eta organo berberaren ebazpenaren bitartez, urtean zehar kopurua eguneratzeko aukera egongo da. Halaber, harrapaketa horiek mugatu ahalko dira, eta horretarako, profesional aktibo eta pasiboentzako lizentzietan askotariko mugak ezarriko dira.”

Gure ustez, artikulua honen izenburuan jaso bezala, esan beharko litzateke ebazpen horrek harrapaketen urteko kopurua ezartzeaz gain, banatuko diren gehieneko lizentzia kopurua ere finkatuko duela.

V.- ONDORIOA

EAeko EGABek egokitzen jotzen du *“EAEan angularen arrantza profesionala arautzen duen eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzen duen Dekretu-proiektua”*, kontsulta organo honek egin dituen oharrekin.

Bilbon, 2023ko azaroaren 27an

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte

² Matrikulen erregistroak «Zerrendak» izeneko hainbat liburu zenbakitutakotan azpibereizten dira. Bertan erregistratzen dira ontziak, itsasontziak eta itsas artefaktuak beraien jatorri eta jardueraren arabera, besteak beste atoiontzia, garraio ontziak, etab. 3. zerrenda da zehazki arrantza jarduera gauzatzeko duten ontziena.